



Competició de Lingüística d'Espanya  
Competición de lingüística de España  
Espainiako linguistika lehiaketa  
Competición de lingüística de España

# **0. txanda**

# **OLE 2016**

**(Ikastetxeen barne-aukeraketa)**

**2015eko abendua**



# Jarraibideak

- Idatzi erantzunak erantsitako erantzunen txostenean. Koaderno hau erabil dezakezu oharrak idazteko, azpimarratzeko, zirriborroak egiteko eta problema ebazteko behar duzun edozein gauza egiteko. Soilik erantzunen txostena bueltatu behar duzu.
- Azterketa egiteko 2 ordu izango dituzu.
- Zuzenketa-irizpideak:
  - (A) 20 puntu
  - (B) 20 puntu
  - (C) 30 puntu
  - Guztira: (C) 70 puntu

Eutsi goiari!

OLE taldea

# Aurkibidea

## PROBLEMA ORRIALDEA

## AUTOREA

A. Fin-itzen fin-landierarekin*	Babette Newsome	3
B. Eskuarekin eta oinarekin Murrinhpathan*	Rachel Nordlinger	4
C. Georgia beti nire bihotzean*	Dorottya Demszky	5

\*Irlandako Olinpiada Linguistikoaren jatorrizko ariketak. OLEren talde antolatzaileak egindako itzulpena eta egokitzapena.



## (A) Fin-itzen fin-landierarekin

Finlandiera ia bost milioi pertsonen hitz egiten dute mundu osoan, bereziki Finlandian. Estonierarekin eta karelierarekin ahaidetuta dago. Finlandieraren ezaugarri gramatikaletako bat da kasu kopuru handia duela, hau da, substantibo batek hainbat forma har ditzakeela, kontuan izanik esaldiaren esanahi orokorrean nola sartzen den.

Gaztelania moduko hizkuntzetan, 'en' eta 'de' preposizioek funtzio baliokidea betetzen dute.

Esaterako, gaztelaniazko 'en Turku' esateko (euskaraz 'Turkun'), finlandieraz Turku izenaren kasu inesiboa erabiltzen da; aldiz, gaztelaniazko 'de Turku' esateko (euskaraz Turkukoa), Turun genitiboa erabiltzen da.

Arazo horren erroka zera da: inesibo- eta genitibo-kasuak eratzeko arauak ondorioztatzea. Ondoren azaltzen diren izen guztiak erregularrak dira, eta zenbait arau adierazten dituzte. Euskarazko itzulpenak jarri dira, adierazgarri gisa.

Ahoskeraren gida:

- j euskaraz 'Joseba' hitzean bezala ahoskatzen da.
- y frantsesezko u bezala edo alemaneko ü bezala ahoskatzen da, alegia, "baditüzü" hitzaren 'ü'ak bezala, alegia, ezpainak borobilean jarrita.
- ä alemaneko ä bezala ahoskatzen da, alegia, 'e' irekia eta luzea.
- letra bikoitzak soinu luzea ahoskatzen dela adierazten du.

Esanahia	Oinarrizko forma	Inesiboa	Genitiboa
Saski	<i>Rove</i>	<i>Ropeessa</i>	
Bainu	(a)	<i>Kylvyssä</i>	
Bit	<i>Bitti</i>	<i>Bitissä</i>	
Jaka	<i>Takki</i>	<i>Takissa</i>	<i>Takin</i>
Zapalda	(b)	<i>Kaapissa</i>	(c)
Dolar	<i>Dollari</i>	<i>Dollarissa</i>	<i>Dollarin</i>
Oihan	<i>Metsä</i>	<i>Metsässä</i>	(d)
Kirten	<i>Ripa</i>	<i>Rivassa</i>	<i>Rivan</i>
Etxea	<i>Talo</i>	<i>Talossa</i>	<i>Talon</i>
Liburutegia	<i>Kirjasto</i>	<i>Kirjastossa</i>	<i>Kirjaston</i>
Materiala	<i>Vaate</i>		<i>Vaatteen</i>
Sendagai	<i>Lääke</i>	<i>Lääkkeessä</i>	
Ama	(f)	<i>Äidissä</i>	
Behar	(g)	<i>Tarpeessa</i>	
Arratoi	<i>Rotta</i>	(h)	
Makila	<i>Keppi</i>	(i)	
Kale	<i>Katu</i>	<i>Kadussa</i>	
Pentsalari	(j)	<i>Älykössä</i>	<i>Älykön</i>
Turku (Finlandiako hiri bat)	<i>Turku</i>	(k)	<i>Turun</i>
Ikusmen	<i>Näky</i>	<i>Näyssä</i>	

**A1.** Idatzi (a)tik (k)ra bitartean agertu beharko lirakeen hitzak.



## (B) Eskuarekin eta oinarekin Murrinhpathan

Murrinhpatha ia 3.000 pertsonak hitz egiten duten hizkuntza bat da Australiako Ipar Lurraldean. Australiako hizkuntza indigena gehienen aldean, erkidego horretako haurrek Murrinhpatha ikasten jarraitzen dute. Hainbat soinu berezi ditu; ortografian *rr*, *nh* eta *th* gisa adierazten dira. Era berean, aditz luze eta konplexuak erabiltzen ditu, eta aditz horien esanahiak azaltzeko beste hizkuntza batzuetan esaldi oso bat beharko litzateke, ondoren agertzen den zerrendan ikusten den moduan.

Laburdurak: [2s], [2n] eta [1] ikurren esanahia da: 'anai-arrebak diren bi pertsona', 'anai-arrebak ez diren bi pertsona' eta 'pertsona bat' (alegia, 'singularra'), hurrenez hurren. Horrela, adibidez, norbaitek anai-arrebak diren beste bi pertsoneri hitz egiten badie, [2s] forma erabiliko luke.

manthap	Nik ukitu nuen (eskuarekin)
namnginthathap	Zuk [2n] ukitu zenuen (eskuarekin)
numamkathap	Zuk [2s] ukitu zenuen (eskuarekin)
thununganthap	Zuk [1] ukitu zenuen (oinarekin)
thunungamnginthathap	Zuk [2n] ukitu zenuen (oinarekin)
nunungamkathap	Zuk [2s] ukitu zenuen (oinarekin)
thanthap	Zuk [1] probatu zenuen (alegia, ahoarekin ukitu zenuen)
thamnginthathap	Zuk [2n] probatu zenuen
narramkathap	Zuk [2s] probatu zenuen
namlerrkperkk	Zuk [1] zapaldu zenuen (eskuarekin)
thunungamlerrkperkk	Zuk [1] zapaldu zenuen (oinarekin)
nanthap	Zuk [1] ukitu zenuen (eskuarekin)
mamnginthathap	Haiek [2n] ukitu zuten (eskuarekin)
pumamkathap	Haiek [2s] ukitu zuten (eskuarekin)
nunganthap	Hark (neskak edo mutilak) ukitu zuen (oinarekin)
nungamnginthathap	Haiek [2n] ukitu zuten (oinarekin)
punnungamkathap	Haiek [2s] ukitu zuten (oinarekin)
danthap	Hark (neskak/mutilak) probatu zuen
damnginthathap	Haiek [2n] probatu zuten
parramkathap	Haiek [2s] probatu zuten
mamlerrkperkk	Hark (neskak/mutilak) zapaldu zuen (eskuarekin)
nungamlerrkperkk	Hark (neskak/mutilak) zapaldu zuen (oinarekin)
manthap	Hark (neskak/mutilak) zapaldu zuen (eskuarekin)
ngumamkathap	Guk (neskok/mutilok) [2s] ukitu genuen (eskuarekin)
ngununganthap	Nik ukitu nuen (oinarekin)
ngunungamnginthathap	Guk (neskok/mutilok) [2n] ukitu genuen (oinarekin)
ngunnungamkathap	Guk (neskok/mutilok) [2s] ukitu genuen (oinarekin)
nganthap	Nik probatu nuen
ngamnginthathap	Guk (neskok/mutilok) [2n] probatu genuen
ngarramkathap	Guk (neskok/mutilok) [2s] probatu genuen
mamlerrkperkk	Nik zapaldu nuen (eskuarekin)
ngunungamlerrkperkk	Nik zapaldu nuen (oinarekin)
mamnginthathap	Guk (neskok/mutilok) [2n] ukitu genuen (eskuarekin)



**B1. Bete ondorengo taulako hutsuneak.**

<b>Murrinhpatha</b>	<b>Gaztelania</b>
(a)	Ukitu
(b)	Birrintu
-ngintha-	(c)
Mamkurrk	Marruskatu nuen (eskuekin)
Thunungamkurrk	(d)
(e)	Guk [2n] marruskatu genuen (eskuarekin)
(f)	Haiek marruskatu zuten (ahoarekin)
-thurr	Zerbaiten gainean zapaldu
(g)	Guk (nire anaiak eta nik) horren gainean zapaldu genuen
(h)	Hark horren gainean zapaldu zuen
Mamkamit	Nik baztertu egin nuen (eskuarekin)
(i)	Nik ezetz esan nuen (= Nik baztertu egin nuen ahoarekin)

**(C) Georgia beti nire bihotzean\***

Georgiera (ქართული *Kartuli*) lau milioi pertsona inguruk hitz egiten dute Georgian. Georgia Itsaso Beltzaren ekialdeko kostaldeko herrialde bat da, Kaukaso mendietako hegoaldean dagoena, eta lehen Sobietar Batasuneko zena. Georgieraren alfabeto modernoaren erabilera lau mende ingurukoa da. Ondoren, hamabi esaldi azaltzen dira georgieraz, haien euskarazko itzulpenekin. Esaldi hauetako aditz guztiak eredu erregularra jarraitzen dute.

კარს ვალებ  
 სახლს აშენებ  
 ედუარდ წერილს იღებს  
 ფარდულს ვაშენებთ  
 საჩუქარს ალებთ  
 ანდრია და მისი დედა პაკეტს იღებენ  
 ხაჭაპური გავაკეთე  
 კარი შეაკეთე  
 ანდრიამ პოემა დაწერა  
 ლევან და მე ავტომობილი შევაკეთეთ  
 სადილი გააკეთეთ  
 ედუარდ და ეკატერინემ წერილი დაწერეს

Atea irekitzen ari naiz  
 Zu etxe bat eraikitzen ari zara  
 Eduard gutun bat jasotzen ari da  
 Gu aletegi bat eraikitzen ari gara  
 Zuek opari bat irekitzen ari zarete  
 Andria eta bere ama pakete bat ari dira jasotzen  
 Khachapuri<sup>1</sup> egin dut  
 Zuk atea konpondu duzu  
 Andriak poema bat idatzi du  
 Levanek eta nik automobila konpondu dugu  
 Zuek afaria egin duzue  
 Eduardek eta Ekaterinemek gutun bat idatzi dute

<sup>1</sup>Khachapuria Georgiako plater tradizional bat da, gaztaz betetako ogiarekin egina.

**C1. Itzuli esaldi hauek euskarara**

- (a) წერილს აღებენ
- (b) კომპიუტერი შეაკეთეთ

**C2. Itzuli esaldi hauek georgierara**

- (a) Zu aletegi irekitzen ari zara
- (b) Nik automobila konpondu dut
- (c) Gu afaria hartzen ari gara
- (d) Haiek opari bat egin dute